
HASIERA

Testua: PAULA CARBALLEIRA

Irudiak: SONJA DANOWSKI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernaturik. 22 x 22 cm. 36 or. 13 €

Hasiera (euskara)

ISBN 978-84-7681-710-0. Kalandraka-Pamiela.

El principio (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-53-9. Libros para soñar.

O principio (galegoa)

ISBN 978-84-8464-779-9. MareMar.

Començar (katalanera)

ISBN 978-84-15170-18-1. Kalandraka-Hipòtesi.

O princípio (portuges)

ISBN 978-989-8205-76-6. Livros para sonhar.

The beginning (ingelese)

ISBN 978-84-8464-780-5. Books for dreaming.

L'inizio (italianoa)

ISBN 978-88-95933-39-9. Libri per sognare.

Behin batean gerra bat izan zen.

Gerra amaitu zenean etxerik gabe geratu ginen.

–Berdin dio –esan zuen gure amak–, badugu auto bat.

Autoan bizitzera joan ginen.

Geroztik, bizitzea bidaiatzea zen...


Hasiera liburu ilustratuak islatzen ditu izuaren aurreko samurtasuna, erabateko prekarietatearen aurreko irudimena, giza dramaren aurreko kemena. Paula Carballeira gerra baten ondorio krudel eta suntsigarrien gainean poesia egiteko gauza da. Sonja Danowski-ren ilustrazio hiperrealistek, berriz, bonbardaketen ondoriozko hondamendiaren eszenatokietaraino daramatza irakurleak.

Lan sentikor eta samur hau, bestalde, liburuari egindako omenaldia da bakerako tresna den aldetik; bibliotekei egindako omenaldia, jakintzazko faro argitsuak diren aldetik; ahozko hitzari egindako omenaldia, arimaren elikagaia den aldetik. Arazo guztiak gorabehera, **Hasiera** liburuak itxaropenezko mezua dakar: bizitzak aurrera egiten du, barre algarak nahigabe lehertzen dira, umeek ezin diote haurtzaroa bizitzeari utzi, edozein gerrak kendu nahi dien arren.

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com
etxea
softxate@pamiela.com



-
- **Colok:** gerra; esperantzazko mezu poetikoa.
 - **Comendatutako adina:** 7 urtetik aurrera.
 - **Naharmentzako aldordiak:** *Patxiku* eta *Smara* liburuen egile berarena; ilustrazio hiperrealistak; bakerako hezkuntza; erlazionatutako beste liburu batzuk: *Guernica*, *¡Sálvate, Elías!*, *La historia de Erika*, *El gran viaje del Señor M*.
-

Paula Carballeira

(Fene, A Coruña, 1972)

Filologia Hispanikoan lizentziatua. 1994tik ahozko narratzaile gisa dihardu; Espainia, Portugal, Brasil eta Txileko kultura-programazioetan parte hartutakoa da. Aktorea gisa, Berrobambán antzerki taldeko kidea da; Galiziako Telebistarako fikziozko telesailetan ere lan egiten du. Idazlea den aldetik, berriz, poesia eta haur literaturako zenbait liburu argitaratu ditu, horien artean *Patxiku* eta *Smara* (azken hau laster euskaraz), KALANDRAKAK argitaratuak.

Sonja Danowski

(Regensburg, Alemania)

Freelance ilustratzaile gisa lan egiten du Berlinen. Zenbait erakusketatan erakutsi du bere obra (Polonia, Txina, Alemania, Korea, Portugal) eta nazioarteko sari batzuk jasotakoa da, hala nola, Alemaniako diseinuzko liburu argitaragabeko onenaren saria, 2007an. Hiru aldiz aukeratua izan zen Boloniako Haur eta Gazte Liburu Azokako Ilustratzaileen Erakusketarako, eta beste hiru aldiz Ilustrarte Portugaleko Biurterokoan. www.sonjadanowski.com/

